



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduak 17

Vitoria-Gasteiz, 17 de diciembre de 2019

Lehendakaritza

JAURLARITZAK ONARTU DU EUSKAL ETXEENTZAKO LAGUNTZA-DEIALDIA 2020an, 902.300 EURO EMANGO DITUENA

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko Euskal Etxeentzako eta euskal etheen federazioentzako eta konfederazioentzako diru-laguntzen 2020ko deialdiari. Diru-laguntza horiek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez banatzen ditu. Orotara, 902.300 euro bideratuko ditu laguntza horietara.

Laguntzaren zatirik handiena –782.300 euro– IV. Kapitulara (ohiko gastuak eta jarduerak antolatzeak) joango da, Euskal Etxeen urteko programak edo jarduera zehatzak laguntzera bideratzeko; nagusiki, gazteria, emakume, kanpo-irudi eta komunikazio, memoria historiko, gastu arrunt eta funtzionamenduaren arloko jardueretara.

Gainerakoa –120.000 euro, VII. Kapitulan, azpiegitura eta ekipamendu gastuetako kapitulan–, zentroen beraien egoera hobetzera bideratutako jardueren gastuak osorik edo zati batean finantzatzera bideratuko da; esaterako, ezbeharrek eragindako kalteak konpontzeko, hesi arkitektonikoak kentzeko, euskal etxe berriak eraikitzeko, gazteentzako lekuak egokitzeko eta gazteen zein emakumeen jardueretan teknologia erabiltzeko.

Gaur onartu den deialdian parte hartu dezakete mundu osoko 25 herrialdetan dauden 195 euskal etxeek. Deialdia EHAAn argitaratzen den egunetik hasita, hilabete bateko epea egongo da eskaera egiteko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK 2019KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONETSI DU; 6.592 PLAZA IZANGO DIRA HEZKUNTZAN, OSAKIDETZAN, ERTZAINZAN ETA ADMINISTRAZIO OROKORREAN

- **Aurrerantzean, sektore bakoitzak deialdi horren prozedura, eskakizunak eta hurrengo azterketen datak zehaztuko ditu**
- **Gaur onetsitako eskaintzaren bidez, Eusko Jaurlaritzak LEPer aterako duen plaza-kopurua, IX. legegintzaldi honetan, dagoeneko, 16.400 plazatik gorakoa da**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Euskal Administrazio Publikorako ***2019ko Lan Eskaintza Publikoa*** onetsi du. Eusko Jaurlaritzak 2019. urtearen kargura lehiaketara edo oposiziora aterako duen enplegu publikoko plazen kopuru osoa da. Guztira, 6.592 plaza izango dira, eta, haietatik, gehienak txanda irekikoak dira eta honela banatuko dira:

- **Hezkuntza 2019: 2.499 plaza**, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, Lanbide heziketako irakasle teknikoentzat, hezkuntza-laguntzako espezialistentzat, fisioterapeutentzat, terapeuta okupazionalentzat, zeinu hizkuntzako interpreteentzat eta transkribatzaileentzat eta materiala egokitzeko arduradunentzat.
- **Osakidetza 2019: 2.150 plaza** zenbait lanbide-kategoriatan estatutupeko langile finkoentzat.
- **Segurtasuna 2019: 900 plaza** XXVIII. eta XXIX. promozioko Ertzaintzako oinarrizko eskalako agenteentzat.
- **Euskadiko Administrazio Orokorra eta erakunde autonomoak 2019: 1.043 plaza** goi-mailako teknikarien gorputzekoak (426 plaza), administrari-laguntzaileen kidegokoak (350), administrazio-kudeaketako kidegokoak (70 plaza), administrarien kidegokoak (130 plaza), mendekoen kidegokoak (50 plaza), psikologoenak (17 plaza).

Enplegu publikoaren deialdi bakoitzera jotzeko prozedura, eskakizunak eta datak, aurrerantzean, mahai sektorial bakoitzean zehaztuko dira: Hezkuntza, Osakidetza, Ertzaintza eta Euskadiko Administrazio Orokorra.

HELBURUA BETE DA

Eusko Jaurlaritzak onetsitako ***“2016-2020 Enplegu Plan Estrategikoa”***k XI. legegintzaldi honetarako 2020. urtera arte lan-eskaintza publikoko 13.500 plazaren deialdia konprometitu zuen. Gaur 2019. urtearen kargura onetsitako eskaintzaren bidez, Hezkuntzako, Osakidetza, Segurtasuneko eta Euskadiko Administrazio Orokorreko plazen kopurua, dagoeneko, 16.400etik gorakoa da:

- 2016. urtea: 877 plaza onetsi ziren.
- 2017. urtea: 4.580 plaza onetsi ziren.
- 2018. urtea: 4.402 plaza onetsi ziren.
- 2019. urtea: 6.592 plaza onetsi ziren.

ANIZTASUN FUNTZIONALA

“Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haien Gizarte Inklusioari buruzko Lege Orokorrak” ezartzen duenaren arabera, eskainitako plaza-kopuru osotik % 7 desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatuko da; horrela, pixkanaka, Administrazioako langile guztien % 2ra iritsiko da.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

JAURLARITZAK 432.000 EUROREKIN FINANTZATUKO DITU EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAN ORDEZKARITZA DUTEN 11 SINDIKATUAK

- Laguntzak sindikatu bakoitzaren ordezkagaitasunaren arabera banatuko dira, ELA eta LAB izanik euskal funtzio publikoan gehiengoa duten sindikatuak

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu euskal funtzio publikoan, (Euskadiko Administrazio Orokorra (Lakua) eta erakunde autonomoak, Osakidetza, Ertzaintza eta Hezkuntza) ordezkariak duten sindikatuen jardura ahalbidetzen duten laguntzak. Guztira **432.000 euro** dira, 11 sindikatuak euren baliabide materialak eta jardura finantzatu ahal izan ditzaten eta, era horretara, Euskal Administrazio Publikoko negoziazio-mahaietan langile publikoen, funtzionarioen nahiz lan-kontratadunen, interesak aldeztu ahal izan ditzaten.

Laguntzak sindikatuen ordezkagaitasunaren arabera banatuko dira:

Funtzio Publikoko sindikatuen finantzazioa Ordezkaritza-ehunekoaren arabera

ELA	143.601,07€
LAB	99.742,04€
CC.OO	61.852,13€
SATSE	51.639,47€
UGT	33.533,94€
STEE-EILAS	14.422,33€
SME	10.549,59€
ERNE	6.969,17€
ESAN	4.181,50€
HITZA	3.557,40€
SIPE	1.951,36€

SINDIKATUEN JARDUERA

Hamaika sindikatuak ordainketa bakarrean jasoko dituzte laguntzak, erabaki hau hartu eta berehala, eta euren jardura justifikatzen duen memoria Lan Harremanen Zuzendaritzari aurkeztu ondoren. Laguntza honen bidez Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu:

- Atal sindikalen gastuak, eta akordioak eta hitzarmenak argitaratzea.
- Administrazioak, Mahai Orokorreko eta mahai sektorialetako jarduerak.
- Sindikatuen jardura gauzatzeko baliabide materialak.
- Negoziazio-jardura eta sindikatuen parte-hartzea.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO VTC ZERBITZUAREN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DU

- Dekretua Euskal Herriko Aldizkarian argitaratuko da ostiral honetan, eta biharamunean, abenduak 21, sartuko da indarrean
- Eusko Jaurlaritzak udalekin eta foru-aldundiekin koordinatuko ditu lurreko garraioa antolatzeko gaietan indarrean den araudia betetzeko ikuskaritza- eta kontrol-lanak

Eusko Jaurlaritzak “argi berdea” eman dio Euskadiko VTC zerbitzuaren baldintzak arautzen dituen dekretuari. Beharrezko izapide guztiak bete ondoren, araudiak Euskadiko askotariko administrazio mailen oniritzia jaso du (udalena zein foru-aldundiena), eta Euskadiko taxien eta VTCen mahai sektoriala bat dator harekin.

4 artikuluko-puntu dituen testu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da datorren ostiralean, abenduak 20, eta biharamunean, larunbatean, abenduak 21, sartuko da indarrean.

Beraz, larunbat honetatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak udalekin eta foru-aldundiekin koordinatuko ditu lurreko garraioa antolatzeko gaietan indarrean den araudia betetzeko ikuskaritza- eta kontrol-lanak; hartara, VTCen sektoreak araudi berriaren edukiak betetzen dituela bermatuko da.

Dekretuaren xedea eta helburua da gidaria duten ibilgailuen alokairu-jarduera ustiatzeko baldintza batzuk arautzea eta kontrolatzea, **aurrekontratazio, zerbitzu-eskaera eta bezeroak eskuratzeko** moduen inguruan; baldintza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan osorik emango diren zerbitzuei aplikatuko zaizkie.

Dekretuak gaikuntzarako esparru hau hartuko du oinarri: uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa, aldatzen duen irailaren 28ko 13/2018 Errege Lege Dekretuko lehen xedapen gehigarria.

Dekretuaren ezaugarriak

- Zerbitzuak nahitaez **aldez aurretik kontratatu** behar direla zehazten du.
- Aldez aurreko kontratazioaren baldintzak zehazten ditu. Alokairu-eskaera egiten denetik zerbitzua eraginkorki erabiltzen hasi arte, **gutxienez 30 minutu** igaro behar dira nahitaez.

- VTCak ezingo dira inolaz ere bide publikoetatik ibili bezeroen bila, ezta **zerbitzurik gabe zain geratu ere bigarren ilaran edo hiri barruko lekuetan pertsona bidaiariak eskuratzeko**, aipatu bezala gutxienez 30 minutu aurretik zerbitzurik kontratatu edo eskatu ez bada.
- Baimendutako ibilgailuak **ezingo dira interesatuentzat geolokalizatuta egon** nahieran erabiltzeko. Dekretuak zehazten duenez, ibilgailuok ez dira ikusgai egongo kanpoko geolokalizazio-sistemetan edo beste aplikaziotan balizko erabiltzaileei kokapen zehatza emateko eta zuzeneko transakzio bat egiteko moduan, enpresari alde aurretik eskaerarik egin gabe; izan ere, enpresak bakarrik jakin behar du uneoro bere ibilgailuak non dauden.

Sektoreko eta Euskadiko administrazioen arteko lankidetzaz

Gaur “argi berdea” eman zaion dekretua Taxiaren eta VTCen Mahaiaren arteko lankidetzaren fruitua da. Beste autonomia-erkidegoen arteko istilu eta gatazkak ez bezala, Euskadin bi negozio-ereduok elkarrekin lan egin dute Euskadin aplikatzeko araudi bat prestatzen, horrekin bilatuz indarrean den araudian oinarrituz sektoreko jardura modu eraginkorragoan eta antolatuan arautzea, betiere, une honetako errealitate guztiei erreparatuz.

Lan hori, batez ere azken urte eta erdian, zorroztasun eta gardentasun handieneko giroan egin da. Esparru bat ezarri da administrazioak Euskadin VTCen jardura arautzeko dekretua presta dezan, indarrean den araudiaren betekizun guztiei lotuz. Horren emaitza araudi proportzional hau izan da, zuzenbideari atxikia eta gizartearen interes orokorra segurtatzen duena.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

728.000 EURO BAINO GEHIAGO EKOIZLEEI KALITATE ETA JATORRI MARKETAN PARTE HARTZEN LAGUNTZEKO

- **Jatorri Izendapenetan, Adierazpen Geografiko Babestuetan eta Kalitate bereizgarrietan lehen aldiz sartzen direnentzat**
- **Kalitate erregimen baten pean dauden produktuak Erkidegoko merkatuan ezagutarazteko eta sustatzeko jarduerak ere finantzatuko dira**

Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman dio ekoizleei kalitate erregimenetan (Jatorri Izendapenak, Adierazpen Geografiko Babestuak eta Eusko Labelaren moduko kalitateko bereizgarriak) lehen aldiz parte hartzen laguntzeko eta Euskadiko nekazaritzako produktuak eta elikagaiak Erkidegoko merkatuan ezagutarazteko eta sustatzeko ekoizleek egingo dituzten jardueretan laguntzeko 2020ko ekitaldian emango diren 728.254 euroren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailburuak eman duen aginduari.

Euskadiko Gastronomia eta Elikadurarako Plan Estrategikoak (GEPE) aurreikusten dituen ekimenetako bat dira laguntza horiek. Plana, berriz, exekutibo autonomoak legegintzaldi honetarako dituen apustu nagusietako bat da, eta, elikadura osasuntsua jomuga izanik, **kalitateko eta jatorrizko euskal produktuak babestea eta merkatu nazionalan zein nazioartekoetan sustatzea** ditu helburu nagusi, besteak beste.

Laguntza motak

Bi eratako laguntzak aurreikusten dira:

- **205.978 euroren laguntzak, ekoizleei kalitateko erregimenetan lehen aldiz parte hartzen laguntzeko.** Laguntza urteko prima bat izango da ustiategi bakoitzeko, eta laguntzaren zenbatekoa kalitate erregimenetan parte hartzeko eskatzaileak egin behar izan dituen gastu finkoen mailaren arabera erabakiko da. Laguntza gehienez ere 5 urterako izango da, onuraduna inskribatu den urtetik hasita.
- **521.276 euroren laguntza, Erkidegoko merkatuan kalitate erregimen baten pean dauden produktuak ezagutarazteko eta sustatzeko ekoizleen elkarteek egiten dituzten jardueretarako.** Zuzeneko diru laguntza bat izango da, ekintzen kostuetatik diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko bat estaltzeko.

Laguntzak eskatzeko inprimakiaren eredia <http://www.euskadi.eus> web orrian dago eskuragarri, eta eskariak Eusko Jaurlaritzako Elikagai Kalitate eta Industriako Zuzendaritzara bidali beharko dira. Pertsona fisikoek modu presentzian eta elektronikoan aurkeztu ahal izango dituzte eskariak, eta pertsona juridikoek, berriz, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dituzte. Eskariak aurkezteko, **hiru hilabete** egongo dira aginduak indarrean jartzen den egunetik hasita.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENDU EGIN DU 2020AN DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTARAKO AURREIKUSITAKO GASTUA, GUZTIRA 370.000.000 EUROAN

- **Lurralde-banaketa:** Araba, 59.427.150,77 euro; Gipuzkoa, 82.448.720,00 euro, eta Bizkaia, 228.124.129,23 euro

Gobernu Kontseiluak baimendu egin du **2020an diru-sarrerak bermatzeko errentarako aurreikusitako gastua**, guztira 370.000.000 euroan. Honela banatzen da, lurraldeen arabera: Araba, 59.427.150,77 euro; Gipuzkoa, 82.448.720,00 euro, eta Bizkaia, 228.124.129,23 euro.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldian behingo prestazioa da, ekonomikoa, oinarrizko beharrei lotutako gastuei eta gizarteratzeko prozesu baten ondoriozko gastuei erantzuteko nahikoa diru-sarrera ez duen bizikidetzak-unitatea eratzen duten pertsonen zuzenduta.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta **urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitu beharreko gastua da**, eta aurretiaz izapidetu da gastu-espedita hau; izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio ekonomikoa hilekoa da. Beraz, **hura kudeatzeko eta ordaintzeko ardura duen organoak, Lanbide –Euskal Enplegu Zerbitzua– erakunde autonomoak**, 2020ko urtarriletik hura finantzatzeko baliabide ekonomikoak dituela bermatu behar da.

Testuinguru horretan, 2020an diru-sarrerak bermatzeko errentaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak guztira 370.000.000 eurokoak dira. Kopuru hori honela banatzen da, lurraldeen arabera: Araba, 59.427.150,77 euro; Gipuzkoa, 82.448.720,00 euro, eta Bizkaia, 228.124.129,23 euro.

DSBE-AREN GASTUAREN BILAKAERA 2020AN

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
Urtarrila	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Otsaila	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Martxoa	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Apirila	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Maiatza	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Ekaina	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Uztaila	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Abuztua	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Iraila	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Urria	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Azaroa	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
Abendua	4.952.262,56 €	6.870.726,67 €	19.010.344,10 €	30.833.333,33 €
GUZTIRA	59.427.150,77 €	82.448.720,00 €	228.124.129,23 €	370.000.000,00 €

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENDU EGIN DU 79.500.000 EUROKO GASTUA, ETXEBIZITZAREN PRESTAZIO OSAGARRIRAKO (EPO), 2020AN

Gobernu Kontseiluak baimendu egin du, 2020rako, **79.500.000 euroko gastua, etxebizitzaren prestazio ekonomikorako (EPO)**, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko legean ezarri bezala. Legean arautzen diren prestazio ekonomikoen artean, etxebizitzaren prestazio ekonomikoa (EPO) dago; aldi behingo prestazio ekonomikoa da, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) osagarri gisa dago antolatuta, haren edozein modalitatetan. EPOa prestazio horien titularren etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuekin lotutako beharrei erantzutera bideratzen da.

Gastu-espeditate horren aurretiko izapidetzearen motiboa da, estaltzen duen prestazioaren izaerarekin berarekin eta haren onuradunen egoerarekin bat etorritik, etxebizitzaren prestazio osagarriaren ordainketa hilekoa dela, osatzen duen diru-sarrerak bermatzeko errentaren ordainketaren aldi berekoa; beraz, bermatu egin behar da hura kudeatzeko eta ordaintzeko ardura duen organoak, Lanbide erakunde autonomoak, 2020ko urtarriletik hura finantzatzeko baliabide ekonomikoak izatea.

Testuinguru horretan, etxebizitzaren prestazio osagarriaren (EPO) bilakaerari buruzko aurreikuspenak, 2020rako, honako hauek dira: 79.500.000 euro banatuko dira, lurraldeen arabera, honela: **Araba:** 12.655.635,57 euro; **Gipuzkoa,** 19.177.801,68 euro; **Bizkaia:** 47.666.562,75 euro.

EPO-AREN GASTUAREN BILAKAERA 2020AN

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EUSKADI
Urtarrila	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Otsaila	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Martxoa	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Apirila	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Maiatza	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Ekaina	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Uztaila	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Abuztua	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Iraila	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Urria	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Azaroa	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
Abendua	1.054.636,30 €	1.598.150,14 €	3.972.213,56 €	6.625.000,00 €
GUZTIRA	12.655.635,57 €	19.177.801,68 €	47.666.562,75 €	79.500.000,00 €

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARATERATZEKO GIZARTE-LARRIALDIETAKO LAGUNTZETARA (GLL) 23 MILIOI EURO BIDERATZEARI

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio diru-sarrerak bermatzeko eta gizarateratzeko **gizarte-larrialdietako laguntzetara (GLL) 23 milioi euro** bideratzeko aginduari. Honela banatuko da kopuru hori, lurraldeen arabera: **Araba 3.625.440; Gipuzkoa 5.855.648 eta Bizkaia 13.518.912**

Aginduaren helburuak dira, 2020ko ekitaldirako, **gizarte-larrialdietako laguntzetan (GLL) aurreikusten den gastu zehatz bakoitzerako gehieneko zenbatekoak** ezartzea, horiek ordaintzeko esleitutako kredituak **banatzeko irizpideak** zehaztea eta lurralde historiko bakoitzari eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokien **aurrekontu-muga ezartzea**.

Bertan, **funtsean laguntza horien kudeaketarekin zerikusia duten hiru kontu ezartzen dira**: dekretu arautzailean aurreikusten den gastu-mota bakoitzerako eman daitekeen **gehieneko zenbatekoa**: alokairua, hipotekak, energia eta abar. Erakunde kudeatzaile guztien artean aurrekontua banatzeko baliatzen diren **banaketa-irizpideak**: udalak edo udalerriaz gaindiko eremuko erakundeak (Arabako mankomunitateak eta aldundia). Eta erakunde bakoitzari, irizpide horiek aplikatu ondoren, egokituko zaion **esleipena**.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU LAUDION LANBIDEREN BULEGO BERRIETARAKO LOKALAK EROSTEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Lanbidek Laudion bere etorkizuneko bulegoa ezartzeko bulego berria erosteko.

Zerbitzu hurbilagokoak eta integralagoak aurreikusten dituen modernizazio- eta hobekuntza-planaren esparruan, Euskal Enplegu Zerbitzuak lokal berriak erostea aurreikusi du; lokal horiek José Matía kaleko 24-26 zenbakietan daude, Nerbioi ibaiaren ondoan, eta Virgen del Carmen kaleko egungo bulegoak ordezkatzeko dituzte.

Lanbideren egoitza izango denak 550 metro koadroko azalera du, eta, horrela, bikoiztu egingo da egungo espazioa; ondorioz, enplegu-erakundeak guneko 20.000 biztanleei ematen dien zerbitzua hobetu egingo da. Haietatik, 2.675 enplegu-eskatzaileak dira, eta 950 diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun.

Gaur egun, Laudioko bulegoan 18 pertsonak eratzen dute plantilla; pertsona horiek Lanbideren beraren eta Estatuko Enplegu Zerbitzuaren (Sepe) kudeaketaz arduratzen dira.

Etorkizuneko bulegoek Lanbidek dagoeneko Salburua, Zabalgana eta Zaramagako (Vitoria-Gasteiz) bulegoei aplikatutako bulegoaren kontzeptu berria izango dute: espazio gardenagoak eta irisgarriagoak izango dira, erabilera anitzeko gelak, enplegu-zentroak eta prestakuntza-gelak jartzeko bertan.

Enplegua eta Gizarte Politikak

**EUSKO JAURLARITZAK ARABAKO GANBERARI DIRULAGUNTZA
EMANGO DIO, LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONENTZAT ETA
LANERATZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN
KOLEKTIBOENTZAT MERKATARITZA-SEKTOREAN *MENTORINGEKO*
ETA TUTORETZAKO PROIEKTUA DISEINATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, oniritzia eman dio Arabako Ganberari 30.000 euroko dirulaguntza emateari; haren bidez, **langabezian dauden pertsonentzat eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat merkataritza-sektorean *mentoringeko* eta tutoretzako proiektua diseinatuko da.**

Proiektua **berritzailea da merkataritzaren eta salmenten sektorean**, langabezian dauden pertsona eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza izango du, *mentoringeko* eta tutoretzako proiektua garatzeko, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboek lan-merkatuan integra daitezen lortzeko trebetasunak eskura ditzaten. Halaber, horren bidez, euskal enpresetako profil horietako beharrei erantzuten zaie.

Arabako enpresa txiki eta ertainek Arabako Merkataritza Ganberari jakinarazi diote zailtasunak aurkitzen dituztela **“sustapenerako eta salmenta eraginkorretarako ekintzak aurrera eramateko”**. Enpresa horietako askoren bereizgarriak honako hauek dira: fabrikazio-prozesuetako kalitatea, haien gaitasun teknikoa eta industria-tradizioa. Baina “merkataritza-defizit garrantzitsuak dituzte komunikazioan eta marketinean, hizkuntzetan eta merkataritza-hizkuntzetan eta nazioartekotzean. Enpresek zailtasun larriak izaten dituzte merkataritza-sektorearekin eta salmentekin zerikusia duten postuak betetzeko; izan ere, ez dituzte aurkitzen lanpostu horiek betetzeko ezinbestekotzat jotzen diren gaitasun pertsonal batzuk”.

Proiektuaren helburua da, batetik, **merkataritzaren eta salmenten sektorean lan egiten duten edo lan egin nahi duten pertsonak izan behar dituzten gaitasun teknikoak eta pertsonalak** zehaztea, eta, bestetik, lan-merkatutik urrunduago dauden baina merkataritza-sektorearekin bat datozen gaitasunak dituzten kolektiboentzako gaitasun tekniko eta pertsonalak eskuratzeko prozesu osoa hartzen eta batzen duten prozesu berritzaileak sartzea.

Lan-prozesua honako hau izango da: **lurraldeko enpresetan** salmenten sektorean lan egiteko behar diren gaitasun teknikoak eta pertsonalak **identifikatzea**. Eta kontuan izango du Arabako lurralde-ikuspena, kuadrilletan aplikatu ahal izango dela.

Enplegua eta Gizarte Politikak

ARTOLAZABAL SAILBURUAK GOBERNU KONTSEILUARI ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN ENPLEGUAREN ETA GIZARATERATZEAREN ETA LANERATZEAREN ARLOAN IZANGO DUTEN JARDUKETA-PROTOKOLOAREN BERRI EMAN DIO

Beatriz Artolazabal sailburuak Gobernu Kontseiluari Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lanbidek Arabako Foru Aldundiarekin enpleguaren eta gizarateratzearen eta laneratzearen arloan izango duten jarduketa-protokoloaren berri eman dio. Datozen egunotan, bi erakundeek lankidetzak akordioa sinatu eta aurkeztuko dute.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Arabako Foru Aldundiak, **jarduketa-protokolo orokor** horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta Enplegu eta diru-sarrerak bermatzeko sistemak emango duten arreta hobetuko dute, **Gobernuak sustapen ekonomikoarekin**, enpresa-egituraren produktibitatearekin, enpleguarekin, ekintzaitzarekin, enpresa-espirtuarekin eta gizarte-politikekin **zerikusia duen ekintzan** Arabako Lurralde Historikoan **eraginkortasun eta efizientzia handiagoa eskuratzeko**.

Sinatuko den akordioak ez du zuzeneko eduki ekonomikorik, alegia, bertan ez dira zuzenean exekutagarriak diren konpromiso ekonomikoak ezartzen.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK GIZARTE-INTERESEKOTZAT JO DU LAN ELKARTUKO ETA GIZARTE-EKIMENEN ZABALTZEN-SARTU KOP ELKARTEA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak gizarte-interesekotzat jo du lan elkartuko eta gizarte-ekimeneko **Zabaltzen-Sartu Kop Elkarte**; izan ere, gizarte-ekintzaren arloko jarduketan bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen garapenean laguntzen duela aitortu dute. **Era berean, gobernuak** Zabaltzen-Sartu Koop Elk erakundeari Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako eta **adierazpen horri atxikitako eskubideak aitortzen dizkio.**

Lan elkartuko eta gizarte-ekimeneko Zabaltzen-Sartu Kop Elkartearen helburua da mendekotasun, babesgabetasun, desgaitasun, pobrezia eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen eta taldeen **erabateko gizarte-inklusioko lortzeko jarduerak eta zerbitzuak sustatu eta garatzea.** Lehentasunez ematen die arreta zenbait kolektibori, besteak beste: genero-indarkeriaren biktimak, haurrak eta gazteak, ahultasun-egoeran dauden adingabeak, bidaidetik gabeko adingabeak, emakumeak, administrazio-egoera erregularreko eta irregularreko etorkinak edo adineko gaituak eta ez-gaituak.

Xede horiek lortzeko, zenbait jarduerak garatzen ditu, besteak beste: **pertsona eta talde horien harrerarako, informaziorako, orientaziorako, laguntza eta gaikuntza pertsonalerako eta teknikorako zerbitzu eta ekintzak,** gizarte-inklusioko jarduerak, zerbitzu eta ekintza bereziak eta langileentzako prestakuntza eta informazioa, bereziki bazterketa-arriskuan daudenentzat, bazterketa handiko gizarte-inklusioko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak eta -zerbitzuak (haurrak eta gazteak, etxetik gabeko pertsonak) edo gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko jarduerak. Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak emateko ibilbide historikoa du; ibilbide egiaztatua, 2008tik 2018ra arte, elkarte gisa.

Ogasun eta Ekonomia

EUSKO JAURLARITZAK DIRUZ LAGUNDUKO DU ELKARGI, S.G.R., GEHIENEZ 552.000€-KO ZENBATEKOAZ

- **Elkargi, S.G.R.k azarora arte 257 milioi euroko zenbatekoa formalizatu du; zenbateko horretatik, 190 milioi euro finantza-abalei dagozkie eta urtearen itxieran saldo metatua 880 milioi eurotik gorakoa izango da**

Gobernu Kontseiluak onartu du Elkargi elkar bermatzeko elkarteari zuzeneko diru-laguntza ematea; diru-laguntza gehienez 552.000€-koa izango da, eta elkartearen hornikuntza teknikoen funtsa indartzera zuzenduko da. Eman beharreko diru-laguntza Elkargi, S.G.R.arekin elkarlanean jarduteko hitzarmen baten bidez bideratuko da.

Eusko Jaurlaritzak, Ogasun eta Ekonomia Sailaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txikien eta ertainen finantzaketa-baldintzak hobetzen laguntzen du, eta, horretarako, hitzarmenak sinatzen ditu zenbait finantza-erakunderekin. Hitzarmen horien artean barnean hartu dira elkar bermatzeko sozietateekin formalizatutakoak.

Horretarako, eta Elkargi, S.G.R.k arlo horretan egindako lan handia aintzat hartuz, erabakiaren helburua da elkarte horren funts propioak indartzea elkartearen hornikuntza teknikoen funtsa gehitzearen bidez. Horri esker, abalak emateko elkartearen ahalmena handituko da eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txikien eta ertainen eta banako enpresaburuen eta profesional autonomoen finantzaketa-aukerak areagotuko dira.

Elkargi S.G.R.k, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, urte honetako azarora arte guztira 190 milioi euro eman ditu finantza-abaletan, eta, hartara, antzeko zenbatekoa duten maileguak eta kredituak formalizatu ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzaketa sustatuz. Urte amaieran saldo metatua 880 milioi eurotik gorakoa izango da.

Hezkuntza

6 MILIOI EURO UDALENTZAKO LAGUNTZATAN, IKASTETXEETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO “UDALAGUNTZA 2019” DEIALDIAREN BIDEZ

- **Udalaguntza deialdiaren bidez 325 obra finantzatu ziren iaz, udal titulartasuneko eraikinetan kokaturik dauden 174 ikastetxetan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Udalaguntza-2019 izenez ezagutzen den dirulaguntza deialdia. Deialdi honen bidez, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabegoko eraikinetan obrak egiteko dirulaguntzak ematen dira. Deialdi honek 6 milioi euroko diru-kopurua du.

Udalaguntza-2019 deialdian parte hartu ahal izango dute aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeak kokaturik dauden eraikinen titular izan eta haietan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Agindu honen bidez finantzatu daitezkeen obrak 2019ko urtarrilaren 2 eta 2020ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharko dute eta 2020ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuak egon behar dute.

Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez emango duen dirulaguntza balorazio-batzordeak onarturiko aurrekontuaren %60koa izango da. Gainerako %40 proiektua aurkeztu duen udalaren gain izango da. Eskaera bakoitzeko gehieneko kopurua, dena den, 360.000 eurokoa izango da. Hortaz, balorazio-batzordeak onartutako 600.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten eskaerei dirulaguntza ematen bazaie, muga hori kontuan hartuta egingo da.

Instalazioak egokitzea

Ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko lanak izan ohi dira sarritan deialdi honen bidez diruz laguntzen direnak, edo baita eraikin horien instalazioak eguneratu edo egokitzeko lanak ere, hala nola: kanpo nahiz barne arotzeria aldatzea; fatxada eraberritzea; patio eta jolastokietan zorua berritzea; eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketak; espazioak birbanatzea; teilatu-konponketak; instalazio elektrikoak eguneratzea; komunak eta saneamenduak konpontzea; edo berogailu sistema aldatzea, beste hamaika motatako lanekin batera. Guztiak ere irakaskuntzaren kalitatean modu zuzen zuzenean eragiten duten jarduerak izan ohi dira. Nola nahi, ez dira deialdi honen bidez finantzatuko lehen ezarpeneko lanak, ezta kontserbazioko eta mantentze obrak ere.

Udalaguntza deialdiaren sorrera, ikastetxeen instalazioetan hobekuntza eta eguneratze lanak burutzeko Hezkuntza Sailaren eta tokiko erakundeen arteko koordinazioan aurkitzen da. Elkarlan horri esker, gainera, baliabide publikoen optimizazioa eta administrazio bakoitzak egiten dituen ahalegin eta jarduketan eraginkortasun handiagoa ere lortzen dira.

2019ko Udalaguntza deialdian parte hartu nahi duten udalek hilabeteko epea izango dute proiektuak aurkezteko –eskatzen den dokumentazioarekin batera-, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Iazko Udalaguntza deialdiaren bidez (Udalaguntza 2018) 325 obra finantzatu zituen Hezkuntza Sailak, Euskadiko 100 udalerritan kokaturiko Haur eta Lehen Hezkuntzako 174 ikastetxe publikotan.

Hezkuntza

DIRULAGUNTZA ZUZENA MUSIKALDIA 2019 EUSKADIKO MUSIKA ESKOLEN FESTARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Alegria-Dulantziko Udalarik 23.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea. Dulantzi Musika Eskolaren titular den heinean, laguntza hori 2019ko Musikaldia festak eragindako gastuak ordaintzeko erabili beharko du Alegria-Dulantziko Udalak.

Euskadiko ia ehun musika eskoletatik 66 batzen dituen EHME - Euskal Herriko Musika Elkarteak, bi urterik behin ospatzen du Musikaldia deritzon festa. Hainbat herritako irakasle zein ikaslerentzako bilgune ere bihurtzen den festa hau antolatzeaz musika eskola bat arduratzen da, bi urterik behin. 2019ko Musikaldiaren antolaketaz –joan zen maiatzean burutu zen- Alegria-Dulantzi Udal Musika Eskola arduratu zen.

Hezkuntza Sailak gogotsu babesten ditu, bai musika eskolek egiten duten lana (egun 30.000 neska-mutil gazte ari baitira horietan musika ikasten), eta baita Musikaldia festa ere. Horregatik, jai egun hori antolatzeak sortzen dituen gastuen finantzaziorako ekarpena egiten du.

Hezkuntza

LEHEN HEZKUNTZA-HARRERAKO PROGRAMARI DIRU-LAGUNTZA ZUZENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Bilboko Diego Berguinces-Otxarkoaga Prestakuntza Ikastegiari 423.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea, ikastetxe honek abian duen Lehen Hezkuntza-Harrerako Programa finantzatzeko. Aipaturiko programa hau lagunduta ez dauden adin txikiko ikasle etorkinei zuzendua da.

Diru-laguntza honen onuradun den Diego Berguinces-Otxarkoaga ikastetxea 2009-2010 ikasturtean hasi zen lagunduta ez dauden adin txikiko ikasle etorkinei (MENA izenez ezagutzen direnei) arreta ematen, Eskolatzeko Osagarriko Programaren bidez. Ikasle hauen profilak euren premietara hobeto egokitzen den hezkuntza-erantzuna eskatzen duenez, 2015-2016 ikasturtean ikastetxeak Lehen Hezkuntza-Harrerako Programa jarri zuen abian, berariaz ikasle hauei zuzendua.

Programa honen helburuak hainbat lan-ildotan banatzen dira. Ildo horietatik sortzen den programak lotura du, batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin, trebetasun instrumentaletako kompetentziari dagokionez; bestetik, Lanbide Heziketatik ere hurbil dago, trebetasun profesionaletako hastapenari begira, baina baita Eskolatzeko Osagarriko Programekin ere, garapen pertsonalari dagokionez. Azkenik, hizkuntza indartzeko ikasgelarekin ere uztartuta dago, honako hau ere bada-eta eremu guztiak batzen dituen helburua

Hezkuntza

DIRULAGUNTZA UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEARI, UNIBERTSITATE-MASTER TITULUA ABIAN JAR DEZAN

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Hezkuntza sailburuak proposatuta, erabaki du 20.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea Udako Euskal Unibertsitateari "*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra*" unibertsitate-masterraren titulua abian jartzean sortutako gastuak finantzatzeko. Master hau, UPV/EHUren ikastegi atxikia den Goimailako Online Institutuaren (GOI.EUS) bidez emango du UEUK.

Goimailako Online Institutua (GOI.EUS) prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketako Ikastegia da, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) esparruan egituratua, eta ingurune digitalek esparru guztietan duten gero eta eskari eta presentzia handiagoari erantzuten dio. Modu horretan, formakuntza online eskaintzen du, modalitate honetan euskarazko unibertsitate-irakaskuntza sustatzeko beharrari erantzuna emateko.

Aipaturiko Unibertsitate-masterrak prestakuntza psikopedagogikoa eta didaktikoa emango die ezagutzaren edozein arlotan lizentziatu eta graduatuei, irakaskuntza-lanbidean jardun ahal izan daitezen Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, hizkuntzen irakaskuntzan, Lanbide Heziketan zein hezkuntza-orientazioan. Hezkuntza Sailak, laguntza honen bidez, Udako Euskal Unibertsitatea UPV/EHUrekin elkarlanean garatzen ari den euskarazko irakasleen prestakuntzarako online masterra abian jartzeko proiektua babestu nahi du.

Hezkuntza

150.000 EUROKO DIRULAGUNTZA BC3 - BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE IKERKETA ZENTROARI, K.LAB LABORATEGIAREN BITARTEZ TEKNOLOGIA TRANFERITZEKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Hezkuntza sailburuak proposatuta, erabaki du 150.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea BC3 - *Basque Centre For Climate Change* bikaintasuneko ikerketa zentroari, k.LAB (Knowledge Modelling Environment) laborategiaren bitartez teknologia transferitzeko.

2008an sortu zenetik BC3-k egin duen lanari esker, ARIES plataforma (Artificial Intelligence for Ecosystem Services) asmatu eta eraiki ahal izan da. Teknologia horrek sarean eskuragarri dauden datuak eta semantikaren eta *machine reasoning* delakoaren bidez modelizatzeko osagaiak integratzen ditu. Plataforma honen azpiko softwareak (k.LAB) datuak integratzeko prozesu osoa erabil dezake modelizazio mota ugariarekin, aldaketa konplexuak aurreikusteko. Kode irekiko k.LAB softwareak datu eta eredu egokienak hautatzeko aukera ematen du, hodei-teknologia erabiliz eta datu-paradigma ireki bati jarraituz: era berean, lortutako ezagutzak irekiak dira eta gizarte osoarentzat eskuragarri daude, eta ondorengo kalkuluetarako oinarri bihurtzen dira, etengabe hazten ari den ezagutza-base bati ekarpena eginez.

Hezkuntza Sailak emandako laguntzari esker, BC3-k programatzaile gehiagorekin osatu ahal izango du dagoeneko lanean ari den ARIES proiektua; hala, tresna multzo bat garatuko da ekoizpen-mailan, zientifikoki zorrotza eta hodeian oinarritua, osagai nagusi berri bat duena: interfaze intuitibo bat, webgunearen bidez eskuragarri dagoena gaitasun teknikorik gabeko erabiltzaileentzat.

BC3 - Basque Centre For Climate Change

BC3 – Basque Centre for Climate Change 2008n abiatutako bikaintasuneko ikerketa zentroa da (BERC), Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHUren artean sortutakoa, klima-aldaketaren arrazoen eta ondorioen inguruko ezagutza garatzeko eta gai horiei buruzko ikerketan aurrerapenak bultzatzeko helburuarekin. Zentroa, beraz, nazioarteko ikerketan erreferente bihurtzeko bokazioarekin jaio zen, ezaguera zientifikoari ekarpenak egiteko gaitasunagatik zein Euskadiko ikerketa eta zientzia sistemara lehen mailako ikertzaileak erakartzeko gaitasunagatik ezaguna.

Osasuna

OSAKIDETZAK LAN ESKAINTZA PUBLIKO BERRIA IRAGARRI DU; 3.103 PLAZA IZANGO DITU

- **Azken bi urteotan sortutako lanpostu hutsez gainera, 2018-2019ko LEPak beste 953 plaza berri barne hartzen ditu, Euskal Osasun Zerbitzuak plantilla gehiago handituko duelako**
- **Lanpostu berrien bidez, laguntzarako dagoen eskari handiagoari erantzun nahi zaio; halaber, zerbitzu eta azpiegitura berriak irekitzeari ere erantzun nahi zaio, eta hori Eusko Jaurlaritzak enplegu egonkorraren eta kalitatekoaren alde duen konpromisoaren erakusle da**

Gobernu Kontseiluak **Osakidetzaren 2018-2019ko LEParen deialdia** onetsi du; **3.103 plaza izango ditu**. Azterketek ia lanbide-kategoria guztiak barne hartuko dituzte, eta 2020an hasiko dira; **datozen hiru urteotan egingo dira**. Eskaintako plazen artean, azken bi urteotan sortutako lanpostu hutsez gainera, **beste 953 plaza berri sortu dira, “Osakidetzaren historian egingo den plantilla areagotzerik handienaren ondorioz”**.

Nekane Murga Osasun sailburuak esan du deialdi berri hori Eusko Jaurlaritzak **enplegu egonkorraren eta kalitatekoaren alde duen konpromisoaren** beste adierazgarri bat gehiago dela.

Gaurko deialdia iragarri du Eusko Jaurlaritzak enplegu egonkorraren eta kalitatekoaren alde duen konpromisoaren beste adierazgarri bat gehiago dela. **2018-2019 LEPak 3.103 plaza izango ditu, eta honela banatzen dira:**

- **1.083 plaza berrezarpenekoak, 2018koak**, 2017an erretiratu edo hil direnei dagozkienak.
- **1.067 plaza berrezarpenekoak, 2019koak**, 2018an erretiratu edo hil direnei dagozkienak.
- **Eta, azkenik, sortu berri diren beste 953 plaza barne hartuko dira. Plaza horien bidez, egonkortze-tasari erantzuten zaio.**

Plaza berri horiek sortzearen helburua da **osasun-arloan dagoen gero eta eskari handiagoari** erantzutea, bai eta **belaunaldi-txandakatzerako beharrari ere, zerbitzu eta azpiegiturak abian jartzea eta inpaktu handiko plan eta proiektuei ekitea**. Berehalakoan artean, Lehen Mailako Arretarako Estrategia, Euskadiko Plan Onkologikoa, Zainketa Aringarrien Plana edo C Hepatitisari Arreta Emateko Estrategia daude; “haiek prestakuntza eta trebakuntza egokia duten profesionalak behar dituzte”, proiektu horiek egoki zabaltzeko.

Plantilla areagotuz, Osakidetzako egitura-plantillan 26.543 langile izatetik 27.496 izatera igaroko da. **Horrek esan nahi du behin-behinekotasuna % 4 murriztuko dela.**

Osakidetzan orain arte egin den plantillaren areagotze handiena izango da, baita **Urdulizko Ospitalea** ireki zenean eginikoa baino handiagoa ere; orduan 700 lanpostu berri sortu ziren.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 40.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU SANAGUSTIN KULTURGUNEA ELKARTEARENTZAT, AZPEITIA DINAMO GIZARTE ETA KULTUR BERRIKUNTZA PROIEKTUA BABESTEKO

- **Ekimenaren helburua “parte-hartze kulturalen eta gizarte kohesioan oinarritutako” eredu berritzailea bultzatzea da**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, bere gaurko bilkuran, 40.000 euroko diru-laguntza onartu du Sanagustin Kulturgunea elkartearentzat, Azpeitia Dinamo gizarte- eta kultura-berrikuntzako proiektua babesteko. Proiektu horren helburua "parte-hartze kulturalen eta gizarte kohesioan oinarritutako" eredu berritzailea bultzatzea da, sare horretan parte hartzen duten eragileen sormena, transmisioa, ikusgarritasuna eta kohesioa indartzea ahalbidetuko duena. Ekimenak, halaber, jardunbide egoki hori nazioartean sendotzea eta partekatzea du helburu, Creadis 3 Europako ekimenaren testuinguruan.

Azpeitia Dinamo ekimenak zerikusi zuzena du 2006an sortu zen Azpeitiko Kultur Mahaiarekin, herriko kultur talde guztiak batzen dituen foroa. Bi urte beranduago, Kultur Mahaia modu iraunkor eta estrukturalagoan abiatu zen, herriko kultur dinamika ehunduz eta kultur kudeaketa eredu berri bat abiaraziz, herriko kultur talde guztiekin eta hainbat aditurekin sare handi baten jardueran oinarritutako topagune komun bat eraikiz.

Apustu horren fruituetako bat izan zen Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Koop. Elkarteak, Azpeitiko bi kultur eraikin nagusiak kudeatzen dituenak: Sanagustin kulturgunea eta Soreasu antzokia. Azken zortzi urteetan, Sanagustin Kulturguneak kultura kudeatzeko eredu parte-hartzailea garatu du, beste euskal herri batzuetara zabaldu dena, eta gizarte- eta kultura-berrikuntza garrantzitsu bat egituratzea ahalbidetu du.

Azpeitia Dinamoren garapena azken mugarria da kultura bultzatzeko apustu berritzaile honen barruan. Ekimen honek sare horren konplexutasunean sakontzea proposatzen du, horretarako bitarteko gehiago jarritz, ahal den neurrian parte-hartzea sistematizatuz eta sare horretako eragileen arteko harremanen gurutzaketa erraztuz.

Presidencia

EL GOBIERNO APRUEBA LA CONVOCATORIA DE LAS AYUDAS A LAS EUSKAL ETXEAK EN 2020 POR UN TOTAL DE 902.300 EUROS

El Gobierno Vasco ha dado hoy luz verde a la convocatoria de las subvenciones que va a conceder en 2020 a través de la Secretaría General de Acción Exterior, a los Centros Vascos, Federaciones y Confederaciones de Centros Vascos - Euskal Etxeak de fuera de la Comunidad Autónoma Vasca. Las ayudas previstas suman un total de 902.300 euros.

Así, la mayor parte de estas ayudas -782.300 euros- serán para el Capítulo IV (gastos de actividades y funcionamiento) y tendrán como objetivo el apoyo a los programas anuales o actividades concretas que lleven a cabo las Euskal Etxeak, preferentemente en el ámbito de la juventud; mujer; imagen exterior y comunicación y recuperación de la Memoria Histórica, así como los gastos corrientes y de funcionamiento.

Por su parte, el capítulo VII (gastos de infraestructuras) está dotado con 120.000 euros destinados a financiar total o parcialmente, los gastos y actuaciones que contribuyan a mejorar las condiciones de los centros tales como arreglo de desperfectos producidos por catástrofes; eliminación de barreras arquitectónicas; nueva construcción de sedes de centros vascos; adecuación de espacios para jóvenes; o introducción de tecnologías para el desarrollo de actividades de jóvenes y mujeres

La convocatoria hoy aprobada está abierta a las 195 euskal etxeak y federaciones que se encuentran repartidas en un total de 25 países de todo el mundo y su plazo finaliza pasado un mes a partir de su publicación en el BOPV.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APRUEBA LA OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO DE 2019 CON 6.592 PLAZAS EN EDUCACIÓN, OSAKIDETZA, ERTZAINZA Y ADMINISTRACIÓN GENERAL

- **A partir de ahora, cada sector concretará el procedimiento, requisitos y fechas de los exámenes de cada convocatoria**
- **Con la oferta aprobada hoy, el número de plazas que sacará a OPE el Gobierno Vasco en esta XI Legislatura supera, ya, las 16.400 plazas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la **“Oferta Pública de Empleo de 2019”** para el conjunto de la Administración Pública Vasca. Es el número total de plazas de empleo público que sacará a concurso u oposición el Gobierno Vasco con cargo al año 2019. Son 6.592 plazas de las cuales, la gran mayoría son de turno libre y se distribuyen de la siguiente manera:

- **Educación 2019: 2.499 plazas** de profesorado de Enseñanza Secundaria Obligatoria, profesorado técnico de Formación Profesional, especialistas de apoyo educativo, fisioterapeutas, terapeutas ocupacionales, intérpretes de lengua de signos y personas transcriptoras y encargadas de adaptar el material.
- **Osakidetza 2019: 2.150 plazas** de personal estatutario fijo en diversas categorías profesionales.
- **Seguridad 2019: 900 plazas** de agentes de la escala básica de la Ertzaintza de la XXVIII y XXIX promoción.
- **Administración General de Euskadi y organismos autónomos 2019: 1.043 plazas** del cuerpo superior facultativo (426 plazas), cuerpo auxiliar administrativo (350), cuerpo de gestión administrativa (70 plazas), cuerpo administrativo (130 plazas), cuerpo subalterno (50 plazas), psicólogos y psicólogas (17 plazas).

